

# XEDAPEN OROKORRAK

## SEGURTASUN SAILA

### 200

*HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2020ko abenduaren 4koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bosgarren aldiz aldatzen baita larrialdiei aurre egiteko euskal sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen agindua.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzera bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Testua argitaratzeko agindua eman duen organo berberak egingo du zuzenketa egiteko eskaria.

Horrelako hutsak aurkitu dira, 2020ko abenduaren 4ko Aginduan, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bosgarren aldiz aldatzen baita larrialdiei aurre egiteko euskal sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen agindua. Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

Zioen azalpeneko seigarren paragrafoan, 2020/5415 (7/1) orrialdean,

honako hau dio:

«Taktika operatiboak berregiteko orduan, inplikaturako erakundeen eta entitate publiko eta pribatuen lankidetzak izan da, betiere 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bateginaren 25. eta 26.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Era berean, taktika operatibo berriek Euskadiko Babes Zibilerako Batzordearen aldeko irizpena jaso zuten, 2019ko abenduaren 18an».

Baina hau esan behar du:

«Taktika operatiboak berregiteko orduan, inplikaturako erakundeen eta entitate publiko eta pribatuen lankidetzak izan da, betiere 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bateginaren 41 eta 42 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Era berean, taktika operatibo berriek Euskadiko Babes Zibilerako Batzordearen aldeko irizpena jaso zuten, 2019ko abenduaren 18an».